Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abenduaren 28a, asteazkena — 245 — Miércoles, a 28 de diciembre de 2022



DEBAKO UDALA

*Salbuespenezko egonkortze-prozesuaren deialdiaren oinarri espezifikoak, Deba Musikal Patronatuko hamahiru musika irakasle plaza jabetzan betetzeko, lehiaketa bidez.*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko azaroaren 24an eginiko bileran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

«*Lehena*. Deba Musikal Patronatuko hamahiru musika irakasle lanpostu egonkortzeko salbuespeneko deialdia egitea, lehiaketa-sistema bidez, Enplegu Publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28 20/2021 Legean oinarrituz.

*Bigarrena*. Deialdi horiek arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartzea.

Oinarri horiek erabaki honen eranskin gisa jasotzen dira.

*Hirugarrena*. Deialdia, eta dagozkion oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Debako Udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratzea.

*Laugarrena.* Hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileetako kideak izendatzeko dagozkion izapideak abian jartzea.»

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du.

Horren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Tokiko Gobernu Batzarrari, erabaki hau argitaratu biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu berraztertzekoa berariaz ebatzi edo ustezko ezespena gertatzen den arte.

AYUNTAMIENTO DE DEBA

*Bases específicas de la convocatoria del proceso especial de consolidación de empleo para la provisión en propiedad de trece plazas de profesor/a de música del Patronato Deba Musikal.*

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 24 de noviembre de 2022, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

«*Primero*. Convocar, con carácter excepcional, por el sistema de concurso, la consolidación de trece puestos de trabajo de profesor/a de música del Patronato Deba Musikal, en base a la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

*Segundo*. Aprobar las bases específicas que regirán dichas convocatorias.

Las citadas bases se recogen como anexo de este acuerdo.

*Tercero*. Publicar dicha convocatoria y sus correspondientes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, así como en el tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento de Deba.

*Cuarto.* Iniciar los trámites oportunos para la designación de las personas que formarán parte de los tribunales calificadores del proceso selectivo.»

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Contra el mismo las personas interesadas podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de este acuerdo.

No obstante, las personas interesadas podrán interponer con carácter previo recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación del acuerdo. En tal caso, no podrá interponerse recurso contencioso-administrativo hasta que se resuelva expresamente el de reposición o se produzca la desestimación presunta.

EK\CV GAO-I-2022-08106

Hori guztia bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso jartzearen kalterik gabe.

Deba, 2022ko abenduaren 15a.-Gilen Garcia Boyra, alkatea. (8106)

Eranskina

*Salbuespenezko egonkortze-prozesuaren deialdiaren oinarri espezifikoak, Deba Musikal Patronatuko hamahiru musika irakasle plaza jabetzan betetzeko, lehiaketa bidez.*

*Lehenengoa. Deitutako plazak.*

Administrazio Bereziko eskalako, teknikarien azpieskalako, erdi mailako teknikarien klasekoa (musika irakasle) hamahiru plazarako deialdia egiten da, sarrera libreko txanda bidez, honela banatuta:

Lanpostua: Musika irakaslea.

Dotazioa: 13.

Eskala: Administrazio berezia.

Azpieskala: Teknikarien Azpieskala, Erdi Mailako Teknikarien klasekoa.

Taldea: A2.

Lanpostu mailako osagarria: 15.

Hizkuntza eskakizuna: 3. HE.

Derrigortasun-data: betea.

Espezialitateak: gaita, tronpeta, perkusioa, trikitixa, bibolina, dantza, tronboia, saxofoia, flauta, klarinetea, kantua, pianoa eta kitarra.

Lanaldia: Beharren arabera zehaztuko da, ikasturteko matrikulazioaren arabera, eta Udalak adosten dituen ordutegia eta egutegia izango ditu.

Lanpostuen balorazioak behin-behinekoak dira.

*Bigarrena. Erantzukizunak eta zereginak.*

Deialdiko lanpostuei dagozkion eginkizunak, orientazio eta azalpen gisa, honako hauek dira:

- Eskolak prestatzea, eta, horretarako, behar adina material hautatzea eta lantzea (programazioak, klase kolektiboak, partituren konponketak, etab.).

- Irakasleen klaustroetara, ebaluazio-saioetara, sailetako bileretara eta irakaslanari dagokionez deitzen diren bilera guztietara joatea.

- Esleitutako eskolak ematea eta antolatzea, baita eskola osagarriak ere, beharrezkoa izanez gero.

- Talde-eskolak ematea eta antolatzea.

- Eskatzen zaizkion kontzertu, jardueretan… parte hartzea.

- Aukeratutako edo izendatutako karguak betetzea, ikastetxearen araudiaren arabera.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime procedente.

Deba, a 15 de diciembre de 2022.-El alcalde, Gilen Garcia Boyra. (8106)

Anexo

***Bases** específicas de la convocatoria del proceso especial de consolidación de empleo para la provisión en propiedad de trece plazas de profesor/a de música del Patronato Deba Musikal.*

*Primera. Plazas convocadas.*

Se convocan trece plazas de la subescala técnica, clase técnicos/as medios/as (Profesor/a de música) de Administración Especial, por el turno de acceso libre, de acuerdo con la siguiente distribución:

Plaza: Profesor/a de música.

Dotación: 13.

Escala: Administración especial.

Subescala: Subescala Técnica, Clase Técnicos/as Medios/as.

Grupo: A2.

Complemento de destino: 15.

Perfil lingüístico: PL 3.

Fecha de preceptividad: vencida.

Especialidades: gaita, trompeta, percusión, trikitixa, violín, danza, trombón, saxofón, flauta, clarinete, canto, piano y guitarra.

Jornada: se determinará en función de las necesidades, en función de la matriculación del curso escolar, y tendrá el horario y calendario que acuerde el Ayuntamiento.

La valoración de los puestos es provisional.

*Segunda. Funciones y tareas.*

Las funciones correspondientes a los puestos convocados, a título meramente orientativo y enunciativo, son los siguientes.

- Preparar las clases, seleccionando y elaborando para ello cuantos materiales le sea necesario (programaciones, clases colectivas, arreglos de partituras, etc.).

- Concurrir a los Claustros de Profesores, sesiones de evaluación, reuniones de departamentos y a cuantas reuniones sea convocado en relación con su tarea docente.

- Impartir y organizar las clases asignadas, así como las complementarias si ello fuera necesario.

- Impartir y organizar las clases de conjunto.

- Participar en conciertos, actuaciones… para los que sea requerido.

- Desempeñar los cargos para los que sea elegido o nombrado, según la normativa del centro.

- Era berean, agintzen zaizkion zereginak egitea, lanpostuan sartzeko eta lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioarekin bat etorriz, aurretik aipatutakoei kalterik egin gabe.

*Hirugarrena. Parte hartzeko baldintzak.*

3.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. Atalean ezarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte.

3.2. Deialdian izena emateagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa 15,00 euro da, egonkortze-prozesuaren oinari orokorren 5.4. atalean ezarritakoaren arabera.

3.3. Sartzeko titulazioa. Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakasle izateko gaikuntza izatea (ezohiko irakasle izateko gaikuntza, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren arabera) edo batxilergoko titulua edo baliokidea izatea, edo goragoko beste edozein. Atzerriko titulazioei dagokienez, horiek homologatu izana eta egiaztatzen duen agiria eduki beharko du hautagaiak.

3.4. Euskara: euskarazko 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da.

*Laugarrena. Hautaketa-prozesua.*

Hautaketa-sistemak bi zati izango ditu:

1. Lehen zatia lehiaketa izango da: Izengaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera.

Lehiaketa ez da baztertzailea izango.

Eskaerak aurkezteko azken egunaren aurretik lortutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

2. Bigarren zatia euskara proba izango da: nahitaezkoa eta baztertzailea, lotutako lanpostuak dituzten 3. hizkuntza-eskakizuna duten eta nahitaezko izaera duten lanpostuak dituzten hautagaientzat.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuen egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzailek baimena emango di berariaz Debako Udalari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo-ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

- Realizar, asimismo, aquellas tareas que se le encomienden, acordes con la cualificación requerida para el acceso y desempeño del puesto, sin perjuicio de las relacionadas anteriormente.

*Tercera. Requisitos de participación.*

3.1. Quienes aspiren a las plazas deben cumplir los requisitos establecidos con carácter general en el apartado 2 de las bases generales.

3.2. El importe de la tasa a abonar por la inscripción en la convocatoria es de 15,00 euros, según lo establecido en el apartado 5.4. de las bases generales del proceso de estabilización.

3.3. Titulación de acceso. Estar en posesión de la habilitación como docente de música en el País Vasco (habilitación como profesor/a extraordinario conforme Decreto 289/1992 de 27 de octubre) o estar en posesión del título de Bachiller o equivalente, o cualquier otro de nivel superior. En el caso de titulaciones extranjeras deberá estarse en posesión de la credencial que acredite su homologación.

3.4. Euskera: se deberá acreditar el perfil lingüístico 3 de euskera.

*Cuarta. Proceso selectivo.*

El sistema de selección constará de dos partes:

1. La primera parte será el concurso: consistirá en el examen y valoración de los méritos alegados y acreditados por las y los aspirantes en la instancia, por medio del sistema de autovaloración, y se efectuará asignando a cada uno de ellos los puntos que le correspondan con arreglo al Baremo de méritos.

El concurso no tendrá carácter eliminatorio.

Solo se valorarán los méritos anteriores al último día de presentación de instancias.

2. La segunda parte consistirá en prueba de euskera: de carácter obligatorio y eliminatorio para las y los aspirantes que opten a las plazas con puestos de trabajo asociados, con perfil lingüístico 3.

Cuando figure acreditado en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera, no habrá que acreditarlo, para lo cual la persona participante autorizará expresamente al Ayuntamiento de Deba a su comprobación en el citado registro.

No obstante, sí deberá aportarse cualquier otro título o certificado de euskera no incluido en dicho registro, pero sí convalidado de acuerdo al Decreto 297/2010 de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de euskera, y su equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

EK\CV GAO-I-2022-08106

3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta-ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baion ez dira onartuko.

*Bosgarrena. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.*

Prozesuaren kalifikazioa merezimenduengatik lortutako puntuen batura izango da, baremo honen arabera:

1. Lan esperientzia.

Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren ataletan lortutako puntuazioaren batura izango da lan esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

a.1. – Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan, Debako udala – Deba Musikal Patronatua barne, A2 azpitaldeko musika irakasle kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanetakoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izanik.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako egun bakoitzeko 0,0091 puntu emango dira, gehienez 20 puntu izan arte.

a.2.- Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Debako udalean – Deba Musikal Patronatuan A2 azpitaldeko musika irakasle kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako egun bakoitzeko 0,0183 puntu emango dira, gehienez 40 puntu izan arte.

Administrazio Publikoren bateko esperientzia, hark eginiko ziurtagirien bidez egiaztatuko da. Honako hauek zehaztu beharko dira: betetako lanpostua, kategoria, iraupena, dedikazioaren ehunekoa eta egindako zereginak.

Debako Udalean – Deba Musikal Patronatuan emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina, interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko.

Deitutako plazak lortu nahi dituztenek zein espezialitate aukeratu nahi duten adierazi behar dute, eta arlo horretan duten lan esperientzia egiaztatu.

Quienes pretendan acreditar el perfil lingüístico 3 al amparo de lo dispuesto en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, deberán aportar la certificación académica correspondiente. A estos efectos, únicamente se reconocerán aquellas exenciones que se hayan validado en el RUTCE-Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera.

*Quinta. Calificación del proceso selectivo.*

La calificación del proceso vendrá determinada por la suma de los puntos atribuidos con arreglo al siguiente baremo:

1. Experiencia profesional.

De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional primera de la Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la puntuación total por experiencia se obtendrá de la suma de la puntuación obtenida en los apartados de experiencia general y de experiencia específica.

a.1.- Experiencia general.

Se entiende por experiencia general, los servicios prestados en cualquier Administración pública, incluido el Ayuntamiento de Deba – Patronato Deba Musikal, en Cuerpos, Escalas o categorías de profesor/a de música del subgrupo A2 o en puestos adscritos a las mismas, con independencia del carácter funcionarial o laboral de la relación de la que traiga causa.

Esta experiencia se valorará a razón de 0,0091 puntos por día trabajado hasta un máximo de 20 puntos.

a.2. – Experiencia específica.

De manera específica diferenciada y complementaria a la valoración de la experiencia general, se valorarán los servicios prestados en el Ayuntamiento de Deba – Patronato Deba Musikal en Cuerpos, Escalas o categorías profesor/a de música del subgrupo A2 o en puestos adscritos a las mismas.

Esta experiencia se valorará a razón de 0,0183 puntos por día trabajado hasta un máximo de 40 puntos.

La experiencia en alguna Administración Pública se acreditará con la presentación del certificado expedido por la misma, especificándose lo siguiente: el puesto de trabajo desempeñado, la categoría, duración, porcentaje de dedicación y tareas realizadas.

Los servicios prestados en el Ayuntamiento de Deba – Patronato Deba Musikal deberán ser alegados, aunque no será necesario acreditarlos por las personas interesadas.

Quienes aspiren a las plazas convocadas deben señalar cuál es la especialidad a la que optan y acreditar su experiencia profesional en dicho ámbito.

EK\CV GAO-I-2022-08106

2. Formakuntza.

25 puntuko balioa izango du, gehienez, Erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek emandako ikastaroak edo mintegiak egiteak, eta bestelako prestakuntza-jarduerak egiteak, beti ere lanpostuarekin zerikusirik izanez gero.

- Titulazioak:

Lanpostuarekin lotura zuzena duten titulazio akademiko ofizialak, lanpostuan eskatutakoaren berdina edo maila altuagokoak, gehienez 20 punturekin baloratuko dira.

- Lanbide-heziketako goi-mailako teknikaria edo titulazio altuagoa: 20 puntu.
- Lanbide-heziketako teknikaria edo batxilergoa: 10 puntu.
- Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakasle izateko gaikuntza: 5 puntu.

Baloratuko diren titulazioak musikako prestakuntzarekin lotutakoak eta oinarri hauetako lehenengo oinarrian eskatutako espezialitateekin lotutakoak izango dira: gaita, tronpeta, perkusioa, trikitixa, bibolina, dantza, tronboia, saxofoia, flauta, klarinetea, kantua, pianoa eta kitarra.

- Euskara:

Euskara ezagutzak gehienez 10 punturekin baloratuko dira:

- C2 maila: 10 puntu.

- Ikastaroak:

Balioetsiko da prestakuntza ikastaro, jardunaldi eta bestelakoetan parte hartu izana, baldin eta lanpostuaren zereginekin zuzeneko zerikusia badute eta herri administrazioko eskolek, unibertsitateek edo beste herri administrazio batzuek antolatuta edo homologatuta badaude. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira eta honako baremo hau aplikatuko da:

- 10 eta 25 ordu bitartekoak: 0,5 puntu ikastaroko.
- 26 eta 50 ordu bitartekoak: 1 puntu ikastaroko.
- 51 eta 75 ordu bitartekoak: 2 puntu ikastaroko.
- 75 ordutik gorakoak: 3 puntu ikastaroko.

Titulazioen atalean aipatutako espezialitateekin lotutako ikastaroak baloratuko dira.

Ez dira kontuan hartuko ikastaroaren iraupenaren ordu kopurua jasotzen ez duten egiaztagiriak.

Hautaketa-prozesuaren bigarren zatia gai edo ez-gai kalifikatuko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat.

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

2. Formación.

Se valorará hasta un máximo de 25 puntos la realización de cursos o seminarios impartidos por organismos oficiales u organismos homologados por aquellos, junto con otro tipo de actividades de formación, siempre que estén relacionadas con el puesto.

- Titulaciones:

Titulaciones académicas oficiales directamente relacionadas con el puesto, de nivel igual o superior a la exigida en el puesto, se valorarán hasta un máximo de 20 puntos.

- Técnico/Técnica superior en formación profesional o titulación superior: 20 puntos.
- Técnico/Técnica en formación profesional o bachillerato: 10 puntos.
- Habilitación como docente de música en el País Vasco: 5 puntos.

Las titulaciones que se valorarán serán las relacionadas con formación en música y las especialidades solicitadas en la base primera de estas bases: gaita, trompeta, percusión, trikitixa, violín, danza, trombón, saxofón, flauta, clarinete, canto, piano y guitarra.

- Conocimientos de euskera:

Los conocimientos de euskera se valorarán con un máximo de 10 puntos.

- Nivel C2: 10 puntos.

- Cursos:

Se valorará la participación en cursos de formación, jornadas, etc., directamente relacionados con las funciones del puesto de trabajo y organizados u homologados por las escuelas de administración pública, universidades u otras administraciones públicas. Se valorarán hasta un máximo de 5 puntos y se aplicará el siguiente baremo:

- De 10 a 25 horas: 0,5 puntos por curso.
- De 26 a 50 horas: 1 punto por curso.
- De 51 a 75 horas: 2 puntos por curso.
- De más de 75 horas: 3 puntos por curso.

Se valorarán los cursos relacionados con las especialidades mencionadas en el apartado de las titulaciones.

No se tendrán en cuenta los justificantes que no incluyan el número de horas de duración del curso.

La segunda parte del proceso de selección se calificará de Apto o no Apto para aquellas personas que opten a las plazas que llevan aparejado perfil lingüístico preceptivo.

La calificación final de las y los aspirantes vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en el total del proceso selectivo.

EK\CV GAO-I-2022-08106

*Seigarrena. Lan-poltsa.*

Hautaketa-prozesu honetatik lan-poltsa sortuko da.

*Zazpigarrena. Lehentasun-klausula aplikatzea.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Deba Musikal Patronatuko irakasle lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

*Sexta. Bolsa de empleo.*

Del presente proceso selectivo se creará una bolsa de empleo.

*Séptima. Aplicación de la cláusula de prioridad.*

A los efectos de la aplicación del artículo 27.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se aplicará la cláusula de desempate prevista en el citado artículo al existir subrepresentación de las mujeres en los puestos de trabajo de profesor/a del Patronato Deba Musical, no dándoles prioridad.

EK\CV GAO-I-2022-08106